

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 8a / 605. zenbakia

UMEENTZAKO POESIA ARETOA

Umeen poesiaren gaineko erakusketa
interaktiboa jarri dute liburutegian



ORAIN ETA HEMEN: ANBULATORIOKO LANAK/8 • KIROLA: HIRU HAUNDIXEK HIRU EGUNETAN/13

MARRAZKIA: JOKIN MITXELENA

ORAINGO ASTEAN: OSASUN GIDA/2

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEIA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72
- MARIA GARDOKI LEGORBURU. ☎ 670 52 19 34

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kale, 22-3. eskuma ☎ 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ... ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5. ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEdia Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ☎ 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kale 54, behea eskuma ☎ 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

KALEINKESTA/ Noix arte iraungo dau Realak goiko postuetan?



JON GALLASTEGI
Langillie




XABI GOROSTIDI
Ikaslie



ITZIAR IRAZABALBEITIA
Ikaslie



MARIASUN ERRAUSKIN
Etxekoandrie



SAUL OSINAGA
Ikaslie



OLGA PRADO
Langabetue

Neuk uste dot gutxi iraungo dauela, baiñe ezin neike esan noix arte ibilliko dien goiko postuetan. Ondo hasi die, suerte apur batekin, baiñe urte dana hor goixan ibillitue oso gatxa da.

Neuregatik izengo balitz, goiko postuetan jarraiketie dauko urte osue, baiñe pentsetan dot apur bat jeitsiko dala. Aurten taldie oso ondo ikusten dot, UEFAra klasi-fiketako bai, behintzet.


Reala ligia bukatu arte hor-txe goixen ibilliko da. Aurten ligie irebazi egin biher dogu, txapeldunek izen biher gara. Gauzak ondo hasi die, eta ona danak goixen bukaketan dau.

Noix arte? Hori errexa da, ba: galdu arte. Ez dot gure Realak partidurik galtzie, baiñe ezin neike esan noix arte ibilliko dan goiko postuetan. Aurten, behintzet, pozik gabitz.

Ondo hasi die, eta zenbat eta gehixago iraun, orduen eta hobeto. Pentsetan dot aurten merezi dogule gutxienez Europara juetie, hainbeste urte sufriduten ibillitue, aurten tokau egitten da.

Ez dauko zertan behin-behiñekue izen. Egixe esan, fubola ez dot askorik jarraiketan, baiñe zergaittik ez da, ba, goiko postuetan denbora luzien ibilliko? Reala bada goixen dagueña, hobeto.

TXALOAK ETATXISTUAK



MONDRAGON
ARRASATE
2002

TXALOAK HERRIKO MAPA EGUNERATUA Ezagun da azken urteotan Arrasate asko aldatu dela, eta, egia esanda, Arrasateko Udalak aspaldi atera zuen mapa zaharkitu samar gelditu da. Duela gutxi, ordea, herriko zenbait merkatarie eta enpresak mapa berria atera dute, eta, zelanbait, Udalak mapa berria kaleratu artean hutsune hori estali dute. Txaloak, hortaz, mapa hori atera dutenei.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

KIROLAK /10

KULTURA /14

Beste biltegi bat Cerrajeran

Cerrajerako lurzoruan erre-gaia duen beste biltegi bat aurkitu dute oraingo astean.

Errugbia zapatuan

Arrasateko Errugbi Taldeak Durango taldearen kontra jokatu du bihar, 15:00etan.

Goikobaluren kontzertua

Datorren egubakoitzean, azaroaren 15ean, Goikobaluko talde guztiek kontzertua emango dute.

ASTEKO DATUA

181

ARRASATEAR JOANGO DIRA BEHOBIA-DONOSTIARA

Ehun eta laurogeita bat arrasatear joango dira domekan Behobia-Donostia maratoi erdian parte hartzera. Joan den urtean berrehun lagun izan ziren, baina ez dira oso datu zehatzak.

BESTE EKESANA

Beste behin gertatu da... Alaves lehenengo mailan dagoenetik ia urtero gertatu da. Ertzaintzak Reala

animatzera Gasteizera joan diren hainbat gazte kolpatu eta umiliatu izan ditu. Aurten ere hiru gazte kolpeak jaso dituzte buruan. Urtero berdin, harmaila eta ate berean. Inoiz ez da Alavesko arduradunik agertu, ezta Realekorik ere. Zer gertatzen da? Ez dakizue urtero gauza bera gertatzen dela? (...) Ez iezaiozue eskatu ezer jarraitzaileei, ez zaudetelako euren mailan (...) Realeko zuzendaritzari: inoiz arduratu zarete zuen taldeko jarraitzaile zaurituengatik? (...) Kazetariok derbian zer gertatu zen jakiteko ez zenuten inolako ahalegirik egin. Eta Realeko jokalariei: noiz salatu behar duzue jarraitzaileei egiten dietena? **BITTOR ARRIARAN** 'Gara'/02-10-30

HERRITARREN BERBAK/ Txipi Ormaetxea



Edadetuen irakaspenak

Gutziz identifikatua sentitu nintzen Unai Elorriaga idazle gaztearen berba hauek irakurri nituenean: "Gazteok uste dugu asko dakigula, eta ez dugula ezeren beharrik. Herri-tik irten ez den zahar batek ezin digula ezer irakatsi uste dugu. Baina guk baino gehiago dakite".

Jende nagusiaren artean ere denetarik egongo da, baina beti izango dugu zer ikasi haiengandik. Kontua da gazteek ez dietela jaramon handirik egiten zaharrei.

Idazkitxo honen bidez, omenalditxo bat egin gura nioke jende nagusiari. Sarritan jo behar izan dut edadetuengana, eta ia beti justura egon naiz haiekin. Gehienetan euskara dela-eta jo badut ere haiengana, haien euskara ederrak bezainbeste liluratu nau euren izaerak eta jendetasunak. Arrasate-Aramaio inguruko adineko mordoxka aipa nitzake, baina auzoko (Gesalibarko) bat aukeratuko dut: Rafael Unamuno. Orain

dela urte batzuk joan zitzaigun Rafael, 90 urte baino gehiago zituela. 1906an jaioa zen. XX. mende osoko lekuko izan zen, beraz. Oso gogoko nuen berarekin egotea, berba egitea, eta batez ere berari entzutea. Kontatzen zuena interesgarri bazen, kontatzeko modua ez gutxiago. Bere izaerak erakartzen ninduen, eta bere patxadak, eta bizitzaren eta munduaren aurrean erakusten zuen jarrerak; bere filosofiak, berba bakarrean esateko. Bestalde, haren aurpegierak islatzen

zuen samurtasuna, haren ontasuna eta umorea ezin ditut ahaztu.

Rafaelekin (eta bere garaiekin) mundu oso bat joan zaigu, arreta handirik ipini ez diogun mundu aberatsa. Eta mundu horrek ez du zerikusirik handirik gaurko gazteek bizi dutenarekin. Eta, zer esango dizuet, belaualdi gutxi batzuetan sortu den leizea handiegia iruditzen zait, eta horrek pena ematen dit.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Ibilgailuen gainera udal zerga %6 igo zuten



Osoko bilkuran, pertsonal, enplegu, hazienda eta diru kontueta-ko batzordeen akordioz, 1993rako ordenantza fiskalen aldaketa onartu zuten. Besteak beste, ibilgailuaren gainera zergak %6,3ko igoera izan zuen. Autobusen eta traktoreen zergak ere antzeko igoera izan zuten.

BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Tatarras"




Arrastaka.
-Tatarras eruan biar izaten dou medikuana.

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Ainhoa Larrañaga abokatua eguazteno

Emun kooperatiban egiten du lan Ainhoa Larrañagak, eta bertan abokatu lanak egiten ditu. Hemendik aurrera, Arrasate Irratira ere hurbilduko da entzuleen galderei erantzutera, betiere, legea eskuetan duela. Ume-ari amaren abizena jartzeko zein pauso jarraitu behar diren edo testamentua zelan egin aholkatu digu Ainhoak, besteak beste. Entzuleok gairen baten gainera argibideak gura badituzue, deitu irratira eta jakinaraz egiguzue zeun galderak.



'Txortxorrien' saio berria hasiko da

Datorren martitzenean, beste saio bat estreinatuko dugu. Txortxorrien izena du tarte horrek, eta Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria izango dira gidariak. Lehena oñatiarra, eta Arrasate Irratian aski ezaguna dagoeneko. Bigarrena, berriz, arrasatearra da eta egun kazetaritza ikasten dihardu. Datorren martitzenean eskainiko dute lehenengo saioa, 20:00etan. Albiste bitxiak eta musika izango dira saio horretako osagarriak.

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 8
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- ZAPATUA, 9
Español. Araba etorb. 17..... 943 79 18 65
- DOMEKA, 10
Azkoaga. Ferrerías 1..... 943 79 15 15
- ASTELEHENA, 11
Azkoaga. Iturriotz..... 943 79 79 99
- MARTITZENA, 12
Corcuera. Maisu Aranbarri 1... 943 79 22 26
- EGUAZTENA, 13
Irizar. Erguin 11..... 943 79 12 39
- EGUENA, 14
Amezua. Santamaina 32 943 79 09 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIEIXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea... 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

- ARRASATE
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
• Medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZAK
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
- San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

MASKULINOTASUNAZ
ESK sindikatuak, Udaleko Emakume Sailaren laguntzarekin, Maskulinitasun jardunaldiak antolatu ditu. Azaroaren 12an, martitzenean, Nikaraguako hizlari batek *Maskulinitasun eztabaidak* berbaldia egingo du, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Egubakoitzean, berriz, Luis Boninok *Gizonezkoak emakumezkoen aldaketaren aurrean* berbaldia egingo du, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Azaroaren 16an, Gizonezkoendako lantegia antolatu dute. Izena emateko: 943 79 04 15.

ARALARREN AURKEZPENA
Azaroaren 13an, eguaztenean, Aralarren aurkezpena egingo dute. 19:00etan izango da, Monterronen, eta Juan Martin Elexpuruk eta Iñaki Aldekoak parte hartuko dute.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Azaroaren 14an, eguenean, *Memento* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

RUPER ORDORIKA
Gaur, egubakoitza, Ruper Ordorikaren kontzertua Amaia Udal Antzokian. Emanaldia 22:30ean izango da. Sarrera: sei euro. Bost euro, Gazte Txartelarekin.

AEDren AGENDA

BERTSO-AFARIA
Azaroaren 15ean, bertso afaria egingo dute. Sustrai Colinak eta Aitor Mendiluzek parte hartuko dute. Izena emateko azken eguna: azaroak 13, eguaztena.

ZAHARBERRIKO IZENEMATEA
Zaharberri euskaldun zaharren eta euskaldun berrien premia dute. Animatu eta parte hartu!

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 1	7 °C
MAXIMOA Zapatua, 2	24 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	56,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 30	21 °C	10 °C	36,6 l/m²
Eguena, 31	20 °C	13 °C	- l/m²
Egubakoitza, 1	20 °C	7 °C	- l/m²
Zapatua, 2	24 °C	8 °C	3,2 l/m²
Domeka, 3	16 °C	14 °C	5,3 l/m²
Astelehena, 4	13 °C	10 °C	6,3 l/m²
Martitzena, 5	18 °C	10 °C	5,5 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia: Maria Agirre eta Nerea Zubietek gidatuta.
09:20 Eguneko agenda.
09:30 Igo autobusera: Aitziber Aranburuzabalak gidatutako magazina.
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efermerideak, zozketak, zorion agurrak... Maria Agirrek gidatutako tartea.
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea: orain dela gutxi kaleratutako abestiak entzuteko aukera.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra

MARTITZENA
20:00 Txortxorrien: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria. Albiste bitxiak eta musika entzungai.

ZAPATUA
11:00 Asteko elkarrizketak:

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Hilerriak lorez gainezka

Joan den egubakoitzean, Domu Santu Egunean, jende asko joan zen Arrasateko hilerrietara. Hildakoak oroitzeko egunean, ohikoa den moduan, lorez bete ziren kanposantzuak. Domu Santu Eguna hilerrietara joateko aprobetxatu zuten arrasatear askok. Oroitzapenak, loreak nonahi, eta emozio malkoak ikus zitezkeen hilerrietan.

Domu Santu Egunaren ospakizuna urtero errepikatzen den ohitura dugu. Belaunaldiz belaunaldi transmititu da, baina hilerrietan jende gazte gutxi ikusi da. Izan ere, zubia aprobetxatuta, jende asko kanpora joan da.

Etxetresnak konpontzeko ikastaroa

Enplegu eta Garapen Ekonomiko batzordeak honako proposamena egin dio Gobernu batzordeari: etxetresna elektrikoak konpontzeko ikastaroa antolatzea emakume langabeendako, hain zuzen ere.

Ikastaroaren helburua emakume langabe talde bati lana aurkitzen laguntzea da, eta ikastaroan 12-15 emakumerendako lekua dago. Eskolak Lantegi Eskolako lantegietan emango dituzte, eta ikastaroak 25.050 euroko aurrekontua izango du. Oraingo asteko Gobernu batzordeak onespenez eman dio proposamenari.

Lehenengo zatia ordainduta

Eusko Jaurlearitzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuak jakinarazi duenez, dagoeneko ordaindu da ailegarratasunaren gaineko hobekuntza lanetarako lehenengo zatia. Guztira, 116.638,22 euro jaso ditu Arrasateko Udalak (19.406.967 pezeta).

Diru hori, Udaletxeko komun eraberritze lanak, zahar egoitzako igogailuen eraberritze lanak eta Monterron-Erguin oinezkoendako zumardirako lanak egiteko erabiliko dute.



Mondrauetarrak taldearen aurkezpena

Mondrauetarrak taldeak aurkezpena egin zuen joan den eguaztenez, hilak 30, Monterronen. Talde berriak "eztabaidaren kulturaren oinarritutako gizartea" gura du, eta pentsamendu kritikoa bultzatzeko sortu da. Horretarako, herritarren parte hartzea bultzatuko du Mondrauetarrak taldeak.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

A zer-nolako justizia!


Aste honetan bertan Arrasateko hiru gaztek Madrilgo Auzitegi Nazionalera joan behar izan dute, Ruiz de Polanco epailearen aurrean deklaratzera. Arrasateko PSE-EEko zinegotzi batek haien aurkako salaketa jarri zuen, gazte horietako batek osoko bilkura baten eta beste biek Eroskin zinegotzia eta haren bizkarzaina ustez mehatxatu

zituztelako. Gazteen esanetan, gertaerak ez ziren horrela jazo. Haien esanetan, osoko bilkuran ez zen halakorik gertatu, eta, bestalde, Eroskin zinegotziaren bizkartzainak gazteak mehatxatu zituen, eta ez alderantziz. Oraingoz ez dago gazteen aurkako frogarik, baina, hala ere, epaileak gazte bati 12.000 euroko fidantza eskatu dio eta beste bati 6.000 euroko fidantza.

Are gehiago, epaiketa egin artean astero epaitegira joan beharko dute, eta ezin dira Espainiako Estatutik irten.

Harrigarria da aspaldi honetan zelakoak ikustera iritsi garen. Bizi dugun testuinguru politikoan euskaldun abertzale batek galtzeko guztiak ditu, Madrilgo Auzitegi Nazionalera bidaltzeko arriskuan dago, eta badirudi epaitegi hartan pertsona horren errugabetsun presuntzioak ez duela ezertxo ere balio.

ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

HIRU ERREGAI BILTEGI TOPATU DITUZTE CERRAJERAN

Cerrajerako etxeen lanak dezente atzeratu behar dira, eta lurpean aurkitu dituzten erregai biltegiek daukate errua. Langileek dagoeneko ez dakite zer topatuko duten hurrengo, aurkikuntza hori nahiko harrigarria izan da-eta. Lehenengo, gasolioz betetako biltegi bat topatu zuten. Haren ondoren beste

biltegi bat aurkitu zuten, 60.000 litro olio beteta. Biltegia lur gainera ateratzea lortu zutenean, lur azpian oraindik olio mordoa zegoen, beste 5.000 litro, hain zuzen ere. Ezusteekin jarraituz, beste biltegi bat ere aurkitu dute. Arraroa da inork ez izatea biltegi horien berri. Ez dira, bada, litro gutxi. /X.U.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

gorka ileapaindegia


ordutegia:

asteartetik ostiralera 09.30 - 20.00

larunbatetan 08.00 - 14.00

ferrerias, 35
arrasate

943 77 13 78



GORKA
ileapaindegia

ELKARRIZKETA

JOSE LUIS AMERIGO/NOTARIOA

“Lanagatik bada, Arrasateko notariotza hiriburu batekoarekin pareka daiteke”

XABIER URZELAI

Jose Luis cadiztarra da, baina Madril eta Arrasate artean bizi da. Jose Luisek daukan curriculumak ez da makala: Ekonomia ikasi zuen lehenengo, eta hamar urte egin zituen Renfen lanean. Lanean zebilela Zuzenbidea ikasi zuen, eta abokatu bulego baten ibili zen. Guztia utzi, oposizioak prestatu, gainditu, eta notario lanetan hasi zen. Galizian izan zen urtebetez, Errioxan egin zituen beste bost urte, eta azkeneko lau urteak Arrasaten daramatza.

Zein da notario baten oinarritzko lana?

Jendeak uste du notario baten lana idatziak sinatzea baino ez dela, baina gure oinarritzko lana dokumentuak egitea da. Eta dokumentu horiek eztaba daezinak izan daitezela, tartean, notarioaren fedea dagoelako. Oinarritzko lana hori da, baina gaur egun, hori bezain garrantzitsua da jendea ondo aholkatzea.

Zein berezitasun dauka zure lanak Arrasaten?

Arrasate denetarik egiten den plaza bat da. Gaur egun, Arrasate hirigunea da, ez da herrigunea, eta hemen, gainera, espezialitate bat daukagu: kooperatibak. Oso kuriosoa da; izan ere, ia egunero, mundu zabalera bidaltzen diren dokumentuak egiten ditugu, eta hizkuntza askotan, gainera. Dokumentu horien aberastasunak harritu nau gehien.

Ez ei da erraza notariotzan lana topatzea.

Bai, egia da nahiko gaitza dela. Gauza bakarra egin behar da: ikasi. Eta asko, gainera. Zuzenbide titulua behar da eta, horrez gain, oposizioak gainditu behar dira. Oposizio horiek prestatzeko lasai asko esan dezaket lau urte inguru behar direla. Ikastearen profesional bilakatu behar da.

Zein da notario arrunt baten eta notario on baten aldea?

Futbol jokalarri arrunt baten eta futbol jokalarri on baten artean dagoen berbera. De Pedrok edo Karpinek daukaten kalitatea ezin da Idiakezenearekin alderatu. Notario batek lana zuzen egingo du, futbol jokalarri batek ondo joka dezakeen moduan. Notario on batek, aldiz, beste segurtasun bat ematen du; futbolearen De Pedrok edo Karpinek ematen duten segurtasuna, alegia.

Guztiok uste dugu notario izatea gozamena izan behar dela.

Niretako gozamena da, baina lanbide hau asko gustatzen zaidalako diot hori. Gozamena ez da



XABIER URZELAI

“Ez bazara etikoa, jendeak ez badu zugan sinesten, notario batek ez dauka zer eginik”

notario izatea, gozamena da atsegin duzun gauza baten lan egitea.

Zure lanbidean etikak zein funtzio dauka?

Nire lanbidearen zutabe nagusia da. Notarioak, azken baten, fedea saltzen du. Lanean ez bazara etikoa, jendeak ez badu zugan sinisten, akabo. Erakusten duzun

“Notario baten hitzak notarioak berak ematen duen konfiantzagatik dauka boterea”

etika horrek egiten du zure lana sinesgarri. Notario lotsagabe asko izango balira, bi hilabetean lanbide hau desagertu egingo litzateke.

Zein izan da egin duzun eskritura bitxiena?

Horma-hilobi bat-edo. Lanbide honetan gauza bitxiak gerta-

“Madrilen jendeak irudi distortzionatua du, arlo guztietan, nik etortzeko esaten diet”

tzen dira, eta anekdotaren bat edo beste ere badaukat: behin, esaterako, Errioxan lanean nenbela, pertsona nagusi bati zein ezkontza-erregimen zuen galde-tu nion. Gorritu egin zen, eta hori garrantzitsua zen galdetu zidan. Nik baietz, jakin beharra nuela, eta zera erantzun zidan: “Dau-

kadan adinarekin, noizean behin bat edo beste”. (Barreak)

Tokatu zaizu lehiaketaren baten lan egitea?

Bai. Hainbat lehiaketatan izan naiz. Behin, Ozkabarten (Santo Domingo de La Calzada) Guinness errekor baten izan nintzen. Ahalik eta txorizo-patata platerkada gehien egiten ahalegindu ziren, eta milaka egin zituzten. Egun oso eman nuen platerak banan-banan kontatzen.

Zerk du notario baten hitzak baino botere handiagoa?

Notario baten hitzak notarioak berak ematen duen konfiantzagatik du boterea. Notarioaren hitzak berak ez dauka boteretik, baina mundu guztiak uste badu notarioak dioena egia dela, horrek botere handia du.

Kazetariarendako manipulazioa dena notarioarendako da...

Manipulazioa baita ere. Jendeak zugar daukan konfiantza galtzea, gezurretan ari zarelako.

Non bizi da hobeto, Madril edo halako hiri baten ala Arrasate edo halako herri baten?

Leku batean bestean aurkitu ezin ditzakezun gauzak daukazu, baina aukeratu beharko banu, Arrasate aukeraturiko nuke. Hirietan mundu guztiak ordu berean gauza bera egin gura du, eta hori ez da posible. Arrasate gizatiarragoa da, lasaiagoa. Hala ere, mondragoetar guztiei Madrilera joateko gonbita egiten diet, ederto pasatuko dute-eta.

Lanera etorri aurretik ezagutzen zenuen Euskal Herria?

Bai, gehienbat, hiriburuak ezagutzen nituen, eta oso inpresio ona neukan. Lanera etorri nintzenean, aldiz, inpresio hobea eraman nuen. Inguruak oso politak dira, eta euskaldunak pertsona irekiak dira. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzaren Zatoz eta konta ezazu esloganari ezin aproposago deritzot. Euskal Herriaren gainean gaizki berba egin beharrean, etor zaitez, eta ikusi zer dagoen. Gauza txarrak ere badaude, Madrilen edo Cádiz-en moduan.

Zer aurkitu duzu beste inon aurkitu ez duzuna?

Ez nuke estereotiporik egin gura, jendea haserretu egiten delako, baina hemen egiten den janariaren gurtza ez dut beste inon ikusi. Laguntasunaren kontzeptua ere oso garrantzitsua da, eta kontzeptu bi horiek elkartzeko ohitura handia dago: lagunekin elkartu eta bazkari edo afaria egin. Elkarte gastronomikotan izaten den giroa izugarri gustatzen zait.

GIZARTEA/ Maskulinitasunaren gaineko jardunaldiak

Maskulinitasuna berbagai izango da ESKren eskutik

UBANE MADERA

Datorren martitzenean, egubakoitzean eta zapatuan, maskulinitasunaren gaineko jardunaldiak izango dira Arrasaten. Besteak beste, Luis Bonino psikiatra etorriko da. ESK sindikatuak antolatuta, helburua da, oro har, berdintasunaren alde egitea.

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren aldeko borrokan, gizonezkoak zeresan handia duela-eta, maskulinitasuna berbagai izango da Arrasaten datozen egunotan. Hain justu ere, gai hori jorratuko duten berbaldi bi eta lantegi bat antolatu dituzte.

Astelehenean, *Maskulinitatea eztabaidan* berbaldia egingo dute udaletxe osoko bilkuren aretoan, 19:00etan. Nikaragutatik etorritako Indarkeriaren Aurkako Gizakume Taldearen eskutik, ESK sindikatuko kide Malen Errastik adierazi digunez, gu baino pobregoren diren guneeetan gai hori zela lantzen duten esplikatu dute.

BERBALDIA ETA LANTEGIA

Egubakoitzean, berriz, Luis Bonino psikiatra eta psikoterapeuta argentinarra izango da Arrasaten. Berbaldia egingo du, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Besteak beste, Argentinako Izaera Maskulinoaren Ikerketarako Zentroko zuzendaria da Bonino. Horrez gain, berdintasuna bultzatzeko lan handia egindako gizona. *Gizonezkoak emakumezkoen aldetan aurrean* berbaldia egingo du; esan bezala, egubakoitzean. Eta zapa-



Zapatuan, gizonezkoendako lantegia izango da Jai-Zale Elkartearen.

tuan Jai-Zale Elkartearen egingo duten gizonezkoendako lantegia gidaria izango da. Lantegia 10:00etan hasiko da, eta interesa duen edozeinendako dago zabalik. Hori bai, jende kopuru mugatuak parte hartu ahal izango du; hortaz, komeni da aurrez izena ematea. Horretarako, honako telefonora deitu: 943 79 04 15

GIZONENDAKO ZAINZA TXIKIAGOA

Berdintasunaren alde egiteko asko dagoela argi erakusten dute Luis Boninok emandako datuek.

Euskaldunon Egunkaria-ri adierazitakoaren arabera, Europan "berdintasuna praktikatzeko duten gizonak %2 eta %5 bitartean dira. Madrilen oraintsu plazaratutako inkesta baten arabera, gizonen %50ek ez dute ezer egiten etxeko lanetan"(...). Nire esperientziak dio gizonak aldatzeko aukera handiagoa dagoela emakumeek aurre egiten dieten neurrian, emakumeek men egitean erasokeriaz jokatzeko dugu-eta, egokitzeko estrategia ugari dugulako. Beraz, zaintza txikiagoa!"

Konponketa lanak egingo dituzte herriko zenbait lekutan

UBANE MADERA

Konponketa lanak egingo ditu Udalak herriko zenbait lekutan: esate baterako, Antso Abarkan espaloia berrituko dute eta J.L. Iñarran eta Garagartzan umeendako parkeak konponduko dituzte.

Musakola auzoko Antso Abarka kalean espaloiak konpontzeko lanak Construcciones Públicas Coprisa enpresari adjudikatu dizkio Udalak, 30.000 euro pasatxoko aurrekontuarekin. Hiru hilabete izango ditu lanok egiteko.

HAUR PARKEAK

Horrez gain, Erdialdeko alkatetzak egindako eskaerari jaramon egin, eta Jose Luis Iñarran dagoen umeendako parkea ere konponduko du Udalak. Ia 16.000 euro inbertituko

ditu horretarako. Canas Esteban enpresak egingo ditu lanok, eta hiru hilabete izango ditu.

Antzerako eskaera egin zuen Garagartzako alkatetzak; kasu horretan, auzoko haur parkerako joko berriak erostea eskatu zuten. Udalak onartu egin du eskaera, eta 3.000 euro pasatxo inbertituko ditu Garagartzarako joko berrietan.

BIDEEN KONPONKETA

Eta bide bi konpontzea ere onartu du herriko Udalak: batetik, Etxeostea kalera joateko bide bat egingo dute hango berdegune baten. Bidea asfaltatu eta argiztatu egingo dute, besteak beste. Lanok Frixu enpresak egingo ditu, ia 17.000 eurotan; bestetik, Gesalibarren Etxetxo Txiki/Saratxo gunean bidea konponduko dute. Canas Esteban enpresak egingo ditu lanok, 11.000 euro pasatxotan.



Aurreneko biltegia atera eta gero aurkitu zuten hirugarrena.

Hirugarren erregai biltegia aurkitu dute Cerrajeran

UBANE MADERA

Cerrajerako etxebizitzaren lur azpian hirugarren biltegia aurkitu dute oraingo astean. Erregaidun aurreneko biltegia atera eta gero egin zuten aurkikuntza. Orain, inguruak arakatzeko segituko dute.

Astelehenean atera zuten Cerrajeran lur azpian olio beteta zegoen biltegi handiena. Barruan zituen 60.000 litro olio hustu zituzten lehenengo. Eta, dagoeneko gutxia hutsik zegoela uste zutenean, biltegiaren azpian beste 5.000 litro olio aurkitu zituzten. Hortaz, berriro ere olio xurgatzeko kamioiari abisatu behar izan zioten, erregai hori ere xurgatzeko.

Eta ez hori bakarrik: ezustekin segituz, bigarren biltegiaren lanean ari zirela, beste biltegi bat

aurkitu zuten Cerrajeran, aurreko bien ondoan.

Hortaz, orain biltegi horietan dagoen gasolioa atera beharko dute, eta garbiketa prozesuekin hasi. Edozelan ere, olio gutxiago dago azken biltegi horietan, bestea baino txikiagoak dira-eta. Eta, gainera, ez da filtraziorik gertatu.

INGURUAK ARAKATZEN

Datozen egunotan, berriz, biltegi gehiago dagoen ikusteko lanekin segituko dute, inguru arakatzeko; izan ere, Udalak ez du gura lur horietan kutsadurarik geratzea.

Lan horiek etxebizitzak erakitzen ari den enpresaren (Amenabar) esku geratuko dira. Izan ere, badirudi enpresakoek bazutela hor zerbaiteko zegoen berri.

Era berean, horren guztiaren ondorioz, Cerrajerako lanak uste baino gehiago luzatuko dira.

Hiru gazte arrasatearrek Auzitegi Nazionalean deklaratu dute

Lur Pagoaga, Gaizka Azkarate eta Saioa Altzua arrasatearrek Auzitegi Nazionalean izan ziren martitzenean, Guillermo Ruiz de Polanco epailearen aurrean deklaratu. Matilde Martín zinegotzi sozialista ustez mehatxatzeagatik salatu dituzte hiru arrasatearrek.

Hain zuzen ere, zinegotzi sozialistaren salaketaren arabera, Lur Pagoagak eskuarekin tiro imintzioa egin zion joan den maiatzaren 30eko osoko bilkuran. Eta Gaizka Azkaratek eta Saioa Altzuak, berriz, Hiper Eroskin mehatxatu egin zutelako dio.

FIDANTZAPEAN

Bi ordu pasatxo izan ziren hiru arrasatearrek epailearen aurrean. Hirurei entzun eta gero, epaileak erabaki zuen hirurak kale-

Hiru gazteek ukatu egin dituzte Matilde Martín zinegotzi sozialistak ipinitako salaketak

an uztea, baina bi, fidantzapean. Horren ondorioz, Lur Pagoagari kartzela-zigorra ezarri diote, 12.000 euroko fidantza ordainduz gero, bete behar ez duena. Gaizka Azkarateri ere zigor bera ezarri diote, baina Gaizkak 6.000 euro ordaindu beharko ditu. Eta Saioa Altzua fidantza barik geratu da kalean. Edozelan ere, aste-

an behin epaitegian sinatu beharko dute eta ezin izango dira Espainiako Estatutik irten, harik eta epaiketa izan arte.

SALAKETA UKATU DUTE

Izan ere, mehatxu terroristak egitearen akusazioa ezarri dute Lur Pagoagaren kontra, mehatxu eta indarkeria akusazioa Gaizka Azkarateren kontra eta indarkeria akusazioa Saioa Altzuaren kontra.

Hiru gazteek ukatu egin dituzte akusazioak. Lur Pagoagak deklaratu zuen maiatzaren 30eko osoko bilkuran pankarta bat eusten zegoela, eta ez zuela inolako keinurik egin. Gaizka Azkaratek eta Saioa Altzuak, berriz, deklaratu zuten eurek ez zutelako Matilde Martín mehatxatu; alderantziz, eurek jaso zutelako mehatxua zinegotziaren bizkartzainarengandik.



Datorren urtean hasi eta 2005ean bukatuko dituzte eraberritze lanak.

GOIATZ ARANA

HIRIGINTZA/Lanak anbulatorioan

Anbulatorioa eraberritzeko lanak egingo dituzte

ARRASATE PRESS

Arrasateko anbulatorioa goitik behera berrituko dute, kanpotik zein barrutik. Lanok egiteko proiektuak aurkeztu dituzte oraingo astean. Horietatik bat aukeratu beharko dute, eta gero, lanak adjudikatu. Hiru milioi euroko aurrekontua izango dute lanak.

Oraindik guztia erabat zehaztuta egon ez arren, solairu guztiak erabat berritu gura dituzte Arrasateko anbulatorioan; horren barruan, adibidez, kontsultak berrituko dituzte, baita itxaron gelak ere. Ondorioz, oro har, erosotasunean asko irabaziko du anbulatorioak.

Horrez gain, eta oraingo egi-

tura nagusia bere horretan utziko duten arren, kanpotik ere txukunduko dute eraikina.

Bestalde, kontuan hartuta anbulatorioa dezente eraikin zaharra dela, zaharberitze lanekin segurtasun baldintzak hobetzea ere bada asmoa.

EZ DUTE ITXIKO

Jose Luis Angulo anbulatorioko kudeatzaileak Arrasate Irratian aditzera eman duenez, anbulatorioa eraberritzeko lanak egiteko hiru bat milioi euro inbertitu beharko dituzte.

Esan bezala, lanak eraikin osoan egingo dituzte, baina, ez da beharrezkoa izango eraikina ixtea. Berritze lanak hirugarren solairuan hasiko dituzte eta horiek egin artean, hirugarren

solairuko kontsultak ospitale zaharrean egingo dituzte. Behin goiko solairuko lanak bukatuta, bigarrenekoak hasiko dira; eta horrela egingo dute guztia, solairuz solairu.

2005ERAKO BUKATUTA

Arrasateko anbulatorioko kudeatzaileak jakinarazitakoaren arabera, oraingo astean bukatu da lanok egiteko proiektuak aurkezteko epea. Orain, lehiaketara aurkeztu diren proiektuetako bat aukeratu beharko dute eta gero, enpresaren bati lanak adjudikatuko dizkiote. Hori guztia egin eta gero, lanak hasiko dituzte. Datorren urtean izango da hori. Eta, bi urte geroago, 2005. urtearen hasieran, alegia, lanak bukatuta izango direla espero dute.

Abiadura Handiko Trena geldiarazteko ekimenak izan dira

UBANE MADERA

Abiadura Handiko Trena dela-eta, prentsaurrekoa eman dute oraingo astean bailarako zenbait elkartet. Besteak beste, tren horren behin betiko proiektua egiteko laginak egiten hasi direla salatu dute.

Debagoieneko AHT Gelditu! Elkarlanak deituta tren horren kontrako prentsaurrekoa izan zen martitzenean Arrasaten. Han izan zen, adibidez, Aramaioko, Eskoriatzako eta Aretxabaletako zinegotziekin batera Arrasateko alkatea.

Bestelako elkarteak ere izan ziren, Ekologistak Martxan, EHNE sindikatua edo trenak kaltetuko dituen partikularrak, adibidez.

LANAK HASITA

Prentsaurrekoan salatu zuten, dagoeneko hasi dira tren horren behin betiko proiektua egin ahal izateko laginak egiten. Aramaion, adibidez, horretan ari dira oraingo astean Untzilla auzora bidean. Eta, hain zuzen ere, eguaztenean, haraxe joan ziren trenaren kontra dauden zenbait ekologista. Besteak beste, langinak egiteko baimeak eskatu zizkien lanon ardura-

dunei, legezkoak diren edo ez egiaztatzeke. Izan ere, Aramaioko Udalak, adibidez, oraindik ez du lanak egiteko idatzizko baimenik eman; Antzuolan ez dute baimenik eta Eskoriatzan oraindik ez dute eskatu. Arrasaten, berriz, badute baimen hori.

Edozelan ere, lanen ardura-dunak ez zuten inolako baimenik erakutsi, eta ekologistek jakinarazi zuten lanak geldiarazi arte jardungo dutela. Adibidez, laginak egiten ari diren lurren jabeek jakinarazi gura diete eskubide osoa daukatela laginak egiteko baime-na ukatzeko.



PSE-EEK kritika gogorrak egin zituzten EAren eta ASaren kontra

UBANE MADERA

Alderdi sozialistako zinegotziek kritika gogorrak egin zituzten udal gobernuko EA eta ASA alderdien kontra.

Besteak beste, interes politikoak herriaren interesen gainera ipintzen dituztela salatu zuten.

Joan den astean aurreratu genizuen zinegotzi sozialistek Egita-mu Orokorraren gaineko prentsaurrekoa eman behar zutela. Baina, azkenean, hori baino gehiago egin zuten joan den astean.

Paco García hitz egin zuen taldearen bozeramaile moduan. Egita-mu Orokorraren gainean, ustez eragingo dituen lanpostuen galera aipatzeaz gain, esan zuen, gai horrekin, EAK eta ASAk interes politikoak herriaren interesaren gainera jarri dituztela. Gai horrekiko izan den gardentasun eza ere salatu zuen, baita inposatutako plana dela ere; eta oro har, Paco García-ren esanetan,

azken urteotako iruzurrik handiena da EAren eta ASaren botoei esker onartutako egitama. Aurrera begira, berriz, planaren kontrako neurri legalak hartuko dituztela iragarri zuen.

BESTELAKOAK

Egitamu Orokorraren gain, bestelako gaiak ere aipatu zituzten sozialistek. Adibidez, eurekin lotutako informazioa emateko orduan herriko komunikabideek manipulatu egiten dugula aipatu zuten. Gaineratu zuten gaur egungo udal gobernuari ez zaiola interesatzen Arrasateren etorkizuna, eta ez direla saiatzen Arrasaterako kanpo inbertsioak lortzen, bereziki, herriak irudi eskasa ematen duelako, bere pintada, pankarta eta abarrekin. Oro har, udal arauak interes politikoaren arabera ezartzen dituztela ere aipatu zuen, eta baita ere, terrorismoari babesa ematen diotela, talde ez nazionalistak erabat baztertuz.



Iheslarien eta haien senideen alde

Iheslariei eta haien senideei elkartasuna adierazteko martxa Arrasaten izan da. Askatasunaren Urratsak izeneko martxa Muxibartik sartu eta herriko plazara joan zen. Han iheslarien senideei krabelinak eman zizkieten eta idatzi bat irakurri zuten. Esan zuten, 600 preso politiko daudela, 1.000 torturatu baino gehiago eta iheslari asko. Alkateak ere bat egin zuen martxarekin.

1949AN JAIOTAKOAK

Urriko hirugarren asteburua aprobetxatu zuten 1949an jaiotakoek bazkari ederra egiteko. Bazkariaren aurretik meza izan zuten, San Frantziskon, eta mezaren ondoren Musakola Hostalean bazkaldu zuten. 50 urte egin zituztenetik urtero elkartzen dira. Bazkalostean gogotik egin zuten dantzan; gizonak, batez ere.



IBAI-ARTE SARIA LANDALUZE HARATEGIAN TOKATU ZEN

Ibai-Arte merkatarik elkarrekin beste 600 euro banatu ditu urrian. Zozketa urriaren 31n izan zen (eguna), eta Isabel Baltzategi arrasatearra izan da saritua. Gabonak gainean daude, eta 600 euro horiek ondo baino hobeto etorriko zaizkio Isabeli. Datorren hilean Ibai-Arte beste 600 euro banatuko ditu, eta abenduan, berriz, 3.000 euroko saria izango da.



ETORKIZUNEKO ARTZAINAK OFIZIOA IKASI GURAN

Arantzazuko Artzain Eskolako ikasleak dira hauek, aurtengo eta azken urteotako ikasleak. Euskal Herriko hainbat lekutatik joaten dira Arantzazura ikastera, eta Arrasatetik ere joaten dira; izan ere, argazkian lau amondragoetar daude. Azken urteotan artzaintzak behera egin du, baina ofizio horri eustea ezinbestekoa da: alde batetik, egungo gizartean asetzen duten beharragatik; eta, bestetik, herri honetako ofizio zaharrenetako eta jatorrenetako galdu egingo litzatekeelako. Hauek dira Euskal Herriko etorkizuneko artzainetako batzuk.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

ERRUGBIA

Arrasatek partidu garrantzitsua jokatu du bihar Durango taldearen kontra

Partidua arratsaldeko hiruretan hasiko da, eta maila parekoa duten bi talde izango dira nor baino nor

XABIER URZELAI

Joan den astean izan zuten atsedena ondo baino hobeto etorri zaie Patxi Gorosabelen mutilei. Liga Txapelketan jokatu dituzten lau partiduak irabazi egin dituzte, eta biharko partiduan helburu berberarekin irtengo dira zelaira. Garagartzakoa zelaia baldin bada, behintzat.

Azken egunotan egin duen eguraldiak ez du askorik lagundu, eta bihar zelaia lokatzez beteta baldin badago, gaitza izango da partidua ikusgarria ikustea. Horrez gain, aurrez aurre izango diren bi taldeen indarrak, hasiera baten, pare-parean daude, baina bihar argituko da bi taldeetako zein den indartsuagoa.

DENBORALDI HASIERA EZIN HOBEA

Arrasateko mutilek ezin hobeto hasi dute denboraldia. Aurre-denboraldian jokatu zituzten partiduetan ez zuten aparteko mailarik erakutsi, baina Liga Txapelketan jokatuak lau partiduak erraz irabazi dituzte. Azkeneko partiduan Avanto Mineiro talde-

aren kontra erraz irabazi zuten, baina bizkaitarrek talde makala zuten. Hala ere, orain arte jokatu dituzten partidu guztiak ez dira talde ahulen kontrakoak izan. Irun eta Hernani taldeen kontra ere jokatu dute arrasatearrek. Irunen kontra etxean jokatu zuten, eta Hernaniren kontra kanpoan jokatzeko tokatu zitzaizkien. Bietan ere mondragoetarrek nagusitu ziren.

ERRAZ BETETZEKO HELBURUA

Arrasateko Errugbi Taldearen helburu nagusia goiko fasean jokatzeko da. Aurten, errugbiko Liga Txapelketaren funtzionamendua aldatu egin dute, eta talde guztiak maila berean jarri dituzte. Guztira, hiru multzo daude, eta multzo bakoitzeko talde onenek beste txapelketa baten izango dira.


Helburua goiko faserako sailkatzea da, eta badirudi mailari eutsiz gero, helburu hori lortzeko ez dela inongo arazorik izango. Horretarako, baina, garrantzitsua izango da Durango moduko talde bat jokoz kanpo uztea. Horretarako aukera bihar, zapatua, arratsaldeko hiruretan.



Arrasatek Hernani eta Irun taldeen kontra, bestek beste, maila polita erakutsi du.

ARRASATE PRESS

FOTOKIROLA



181 mondragoetar Behobia-Donostian

Aurten, badirudi joan den urtean baino arrasatear gutxiago izango direla Behobia-Donostia maratoi erdian. Joan den urtean, berrehun lagun izan ziren proban, baina askok Donostian ematen dute izena; hortaz, ez dira datu zehatzegiak. Joan den urtean, Zuhaitz Ezpeleta izan zen arrasatear azkarrena. 1:09:03 behar izan zuen bedonarrak 21 kilometroak egiteko. Astelehenean, Alberto Garaik *Harmailatik* kirol saioan zera zioen: "Nor bere erritmora joan behar da, eta hobe da larregi ez estutzea". Ikusi, bestela, asko estutuz gero zer gertatzen den. (X.U.)

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Baribai Etorbidea, 2-6. Arrasate

SASKIBALOIA

Lehenengo puntuak etxean eskuratzeko asmoz kantxaratuko dira arrasatearrak

Bihar, zapatua, arratsaldeko seietan, Antonio Erro y Eugui talde nafarra izango dute kontrario Arrasateko mutilek

XABIER URZELAI

Irabaztea zer den jakin barik jarraitzen dute Iker Zubiriaren mutilek. Dagoeneko bost partidu jokatu dituzte, eta oraingo asteburuko seigarren jardunaldia izango da. Oraingo asteburuan, baina, etxean jokatu dute; ea horrek, behintzat, laguntzen duen.

Joan den aspaldiko denboraldi hasiera kaskarrena egiten ari dira Kenci Arrasateko mutilek, eta dagoeneko aitzakia barik geratzen ari gara. Zortea lagun ez dutenean, aurkaria gogorra zela esan dugu. Joan den asteburuko partidurako ere bada beste aitzakia bat: Iker Zubiriak jokalaria gutxi izan zituela eskura. Eta ez da aitzakia txarra, Jagoba Gamarra, Mikel Pagaldai eta Iñigo Ziarso min hartuta daude-eta. Edozelan ere, badirudi oraingo astebururako Iñigo jokatzeko moduan izango dela. Jokalari gutxi zeudenez, Iker Zubiriak junior mailako jokalaria bat ere eraman zuten


Iruñea aldera, baina ez zen nahikoa izan.

CONSMETALEK LEHENENGO PUNTUAK

Talde nafarra eta Arrasateko taldea puntu barik zeuden joan den asteburura arte. Arrasatearrak puntu bila abiatu ziren Iruñera, baina 73-66 galdu zuten partidua. Iruindarrek ez zuten askoz hobeto jokatu, baina arrasatearrek ez zituzten aprobetxatu edukitako aukerak. Atsedenaldira talde biak parekatuta iritsi ziren (32-30), eta bazirudien, beste behin, azkeneko laurdena erabakigarria izango zela.

Baina hirugarren laurdenean ibili ziren mondragoetarrek ondoren. Hamar minutuan arrasatearrek norgehiagoka parekatu, eta lau puntuko alde eskuratu zuten, baina azken laurdenean ezin izan zioten alde horri eutsi, eta nafarrek aurre hartu eta partidua irabazi zuten.

Oraingo asteburuan beste talde nafar bat izango dute aurrez aurre arrasatearrek: Antonio Erro y Eugi taldea, hain zuzen ere.



Ea etxean jokatu Kenci Arrasateko denboraldiko lehenengo partidua irabazten duen.

ARRASATE PRESS

ESKUBALOIA

AGRk bikain jarraitzen du, eta bigarren taldeak ere irabazteko aukerak izan zituen

AGR Arrasatek 36-15 irabazi zuen Donibaneren kontra, eta bigarren taldeak 20-28 galdu zuen Legazpiko Egialde taldearen kontra



XABIER URZELAI

AGR taldeak ezin hobeto jarraitzen du, jokatutako partidu guztiak irabazi egin ditu-eta. Joan den astean, Donibane ez zen aurkari izan, eta etxeok erraz nagusitu ziren. Partiduko protagonista, beste behin, epailea.

Bigarren taldeak ere -Arrasatek- partidu ona egin zuen Legazpin, eta garaipena eskura izan zuten Jesus Mari Herreroren mutilek. Legazpiarrek zortzi goleko aldearekin irabazi zuten, baina arrasatearrek zazpi penalti huts egin zituzten. Badaukate, hortaz, zertan hobetu.

ORAINGO ASTEBURUKO PARTIDUAK

Oraingo asteburuan AGR Arrasatek kanpoan jokatu du. Partidua domekan izango da, Usurbilen, 11:00etan. Bigarren taldeak, berriz, Arrasaten jokatu du, zapatu arratsaldean; partidua Musakolako kiroldegian izango da, arratsaldeko seietan.

GOIATZ ARANA

Joan den astean jokatutako partiduan AGR bikain ibili zen, defentsa lanetan, batez ere.



XABIER URZELAI

Mondrak irabazi egin beharko du, liderra, Zumaiako, dagoeneko bost puntura dago-eta.

FUTBOLA

Mondra hiru puntuak eskuratzen ahaleginduko beharko da Ordizian

Azken bi partiduetan puntu bakarra eskuratu dute, eta liderra bost puntura dago

XABIER URZELAI

Erregional mailan jokatzeko askok uste dutena baino gaitzagoa da. Denboraldi hasiera ona egin zuten Josu Zubiaren mutilek, baina azken bi partiduetan arrasatearrak ez dira batere ondo ibili, eta larrutik ordaindu dute hori.

Itxura hobetzea Mondraren helburuetako bat izango da oraingo asteburuan, baina are garrantzitsuagoa izango da jokoan dauden hiru puntuak eskuratzea.

Josu Zubiaren mutilek bikain hasi zuten denboraldia: lehenen-

go partiduan Orioko taldearen kontra 1-1 egin eta gero, mondragoetarrek hurrengo lau partiduetan irabazi egin zituzten. Azkeneko bi jardunaldietan, berriz, behera egin dute. Zumaiakoren kontra 0-2 galdu zuten, baina partidu guztiak irabaztea ere ez da posible, eta aurkaria ere ez zen makala. Joan den asteburuan, berriz, Mondrak erraz irabazteko partidua zuen. Kontrarioa Ilintxa taldea zen, baina alde handia zegoen joan den urteko Ilintxaren eta aurtengoaren aldean.

Mondrak aukera asko izan zituen lehen zatian, baina aukera horiek ez zituen aprobetxatu.

Hala ere, Mondrak gol bat egitea lortu zuen, eta taldeak gora egin beharrean behera egin zuen.

Ilintxak egin beharrekoa egin zuen. Epaileak ez zuen askorik behar izan Mondraren kontrako penaltia adierazteko, baina Arrasateko jokalariek gauzak errazegi jarri zituzten. Penalti jaurtiketan ez zuten kalerik egin, eta ia ezer egin barik kanpotarrek puntu bat eraman zuten Atxabalpeko zelaitik. Mondrak laugarren postuan jarraitzen du, baina beste hutsegite batek sailkapenaren erdiraino eramango luke talde arrasatearra. Gero gaitza izaten da burua altxatzea.

FOTOKIROLA



Gaur, pilota partidu bi Uarkapen

Arrasateko pilotariak partidu bi jokatu dituzte gaur, egubakoitza, Uarkapen. Arratsaldeko zazpitan hasita, gazte mailako eskuz banakako eta bigarren seniorreko eskuz binakako partiduak izango dira ikusgai Uarkapen. Gazte mailan, eskuz banaka Gozalo arituko da, eta bikoteka Zuazubiskarrek eta Uribarrenek jokatu dute. Oraingo asteburuko beste bi partiduak kanpoan jokatu dituzte etxeko pilotariak. /X.U.

MENDIA

Etzi, domeka, bizikleta martxa izango da, Besaide Mendi Elkarteak antolatuta

Domekan, azaroaren 10ean, bizikleta martxa izango da, Besaide Mendi Elkarteak antolatuta. Bizikleta martxan parte hartzeko ez da beharrezkoa izango izenik ematea. Bizikleta martxan parte hartu gura duenak domekan, goizeko bederatzietan, Garibaiko autobus geltokira joatea nahikoa izango du.

Bizikleta martxa Urbiara egingo dute, eta ez ei da ibilbide oso gogorra izango; hortaz, bizikletan noizean behin ibiltzen zaretenok ere lasai asko anima zaitezke. Hori bai, mendiko bizikletan ibiltzeko arropa aproposa eramatea gomendagarria da. Dagoeneko gutxi geratzen da negua iristeko, eta garai honetan mendian oinez edo bizikletan ibiltzea ez da txantxetako kontua izaten. Horregatik, kontuan izan zein arropa aukeratu duzuen.

Horrez gain, indarrak errekuiperatzeko janaria eta edaria eramatea ere aproposa izaten da.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - Abocajarro	6-6
Lasagabaster - Rayo Aldeano	3-6
Iriztu Taberna - Goma2	3-3
NS/NC - Maldifa's	1-3
You Know - Betrayar	3-4
Etixerat - Makanaki	2-5
Komando Alpagat - Al Kaeda	4-5

B MULTZOA

El Ekipo A - Fraguol Gol	6-4
Estu Ta Larri - Dribling.es.vg	2-7
Whiskeria - Saloga	4-9
Fuxxion - Billy & The Cowboys	3-2
Aurrera Bolie - Koka Juniors	6-3
AT Celaya - Bikain Akademia	6-6
Etxinai! - AC Surcos	3-7

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Makanaki	4	2
2. Saukelu Scream	3	2
3. Iriztu Taberna	3	2
4. Betrayar	3	2
5. Etixerat	2	2
6. Al Kaeda	2	2
7. Rayo Aldeano	2	2
8. You Know!	2	2
9. Maldifa's	2	2
10. NS/NC	2	2
11. Lasagabaster	1	2
12. Komando Alpagat	1	2
13. Goma2	1	2
14. Abocajarro	0	2

PARTIDUAK

AZAROAK 9, ZAPATUA.

ORDUA	EMATEK	EPAILAK
08:50	Abocajarro - Goma2	AT Celaya
10:00	AT Celaya - Etxinai!	Abocajarro
11:00	K. Alpagat - Etixerat	Etxinai!
12:00	Iriztu Tab - Betrayar	Etixerat
13:00	Saukelu S - Rayo Aldeano	Betrayar
14:00	NS/NC - Makanaki	Rayo Aldeano
15:00	Whiskeria - Koka Juniors	Makanaki
16:00	Fraguol Gol - Saloga	Koka Juniors
17:00	Estu Ta Larri - Billy & The...	Saloga
18:00	A. Bolie - AC Surcos	Estu Ta Larri
19:00	You Know - Al Kaeda	AC Surcos

AZAROAK 10, DOMEKA

10:50	El Ekipo A - Dribling	Bikain Akad
12:00	Fuxxion - Bikain Akad	Dribling
13:00	Lasagabaster - Maldifa's	Fuxxion

AMAITU DA ATSEDENA

BERRIRO ERE JOKATZERA

Joan den asteko asteburu luzea atsedena hartzeko aprobetxatu eta gero, Zaldibarko Txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu da oraingo asteburuan. Txapelketako hainbat jokalarik, berriz, Gabonak arte atsedena hartzeko aukera izango dute, baina antolatzaileek inposatutako atsedena izango da, zigortuta daude-eta. Oraingo asteburuan bost jokalarik daude zigortuta: hiru jokalarik partidu bakarreko zigorra bete beharko dute, baina beste bi jokalarik lau aste egongo dira txapelketatik kanpo. Ikusi egin behar zerbitzatarako balio duen.

PARTIDU INTERESGARRIAK

Oraingo asteburuan hainbat partidu interesgarri jokatu dira, baina zapatu goizeko partiduak aukeratu ditugu guk: goizeko hamaiketan, derbia izango da Etixerat eta Komando Alpagat taldeen artean, eta segidan jokatu diren beste bi partiduak ere ez dira makalak izango: eguerdiko hamabietan, Iriztu eta Betrayar izango dira aurrez aurre, eta partidu horren ondoren, Saukelu eta Rayo Aldeanok jokatu dute. Zuek aukeratu.

MENDIA


Parte hartze handia eta arazorik eza Hiru Haundixek Hiru Egunetan ibilaldian

Hiru Haundixek Hiru Egunetan mendi martxa egin zuten joan den asteburuan, Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak antolatuta

Euskal Herriko 40 lagunek parte hartu zuten AED elkarteak antolatutako mendi martxan. Beste sei bat lagunek antolatutako azpiegiturak lagunduta, Gorbeia, Aizkorri eta Anboto mendiak egin zituzten hiru egunean. Gipuzkoatik, Bizkaitik eta Arabatik etorri ziren mendizaleak mendi martxara. Are gehiago, AEDko presidente Joseba Ezpeletak jakinarazi digunez, zenbait arrasatearrek ezin izan dute mendi martxan parterik hartu, leku mugatuak zeudelako, eta berandu ibili zirelako.

Domeka goizean izan ezik, eguraldi onak lagundu die mendizaleei hiru egun horietan. Hala kontatu digu Joseba Ezpeletak. Haren esanetan, mendizaleen arteko giroa ere oso ona izan da, inori ez zaio ezer gertatu eta ez dira bidean galdu; oro har, "jendeak ondo pasatu du eta formal portatu dira". Bestalde, ibilaldiaren antolakuntza oso ona izan dela nabarmendu dute mendizaleek. Datorren urtean, hiru eguneko astebururik izanez gero, berriro ere antolatuko dute antzeko ibilaldiren bat.

Argazkiak: AED Elkarteak.





IKER BARANDIARAN

Argazkian, proiektuaren sortzaile Itziar Zubizarreta, Galtzagorriko arduradun Elena Franko eta liburutegiko Asun Agiriano.

LITERATURA/ Galtzagorri elkarteak Monterronen haur poesia erakusketa jarri du

Haur Poesia Aretoa jarri dute Monterron liburutegian

IKER BARANDIARAN

Galtzagorri elkarteak Haur Poesia Aretoa izeneko erakusketa interaktiboa jarri du Monterrongo liburutegian. Azaroaren 5etik abenduaren 2ra bitartean, poesia entzun, poesiaz gozatu eta, bide batez, jolas egin ahal izango dute umeez, baita nagusiek ere.

Haur eta gazte literatura bultzatzeko eraturako Galtzagorri elkarteak erakusketa estreinatu berri du. Aukeratutako lekua Arrasateko Monterrongo liburutegia izan da. Azaroaren 4tik abenduaren 2ra arte, Haur Poesia Aretoa Arrasaten ikusi ahal izango dugu. Oso erakusketa bitxia antolatu du Galtzagorri, eta erakusketa ikustearekin bat hainbat joko proposatu dituzte. CD bat entzutearekin batera, erakusketa ikusi, poesia entzun eta hainbat joko egin daitezke.

'POESIAREN BASOAN GALDU'

Erakusketa baso bihurtu, eta bost zuhaitzetan banatu dute: lehenengoak udazkena irudikatzen du. Zuhaitz horretan, kontaktuz argibideen laguntzarekin, hainbat pertsonaia aurkitu behar dira; bigarrenen, udaberriaren, kokoen barruan aurki daitezkeen poemekin jolas egiteko aukera izango da; hirugarrena negua da, eta haren poltsen barruan poemak berritzeko aitzakiak aurki daitezke, baita kromo eta esku-jolasak ere; laugarrenean, udan, hitzekin jolas egin daiteke; eta,

azkenik, bosgarrenean gaur egungo zenbait idazleren –Andu Lertxundi, Pello Añorga, Joxean Ormazabal...– poema liburuen orri bana zintzilikatu dute, gura duenak irakur ditzan.

Joko eta ezohiko proposamen horien guztien laguntzarekin, umeez poesiarantz hurbiltzea eta umeez eurek poesiarekin gozatzeko gura dute.

Jolas ibilbide horretarako tradiziozko haur poemak aukeratu dituzte: korro-jolasak, esku-jolasak, zenbaki-jolasak eta aho-korapiloak, batez ere.

Erakusketa ikusteko bi modu egongo dira: batetik, azaroaren 5etik abenduaren 2ra bitartean, goizetan, Arrasateko zortzi eta bederatzi urte bitarteko umeez Haur Poesia Aretotik igaroko dira. Horiez gain, ibarreko beste ume batzuek ere aukera hori izango dute; bestetik, arratsaldeetan, 18:00ak eta 20:00ak bitartean, edozeinek, ume zein nagusi, bere kasa erakusketa ikusteko aukera izango du.

Ikastetxeetako bisitaldiek Galtzagorriko begirale bat izango dute. Gainerakoek, berriz, ez.

Erakusketa interaktiboa

Haur eta gazte literatura sustatzeko eraturako Galtzagorri elkarteak antolatu du *Bazen behingo basoan...* izeneko Haur Poesia Aretoa. Joan den astean estreinatu zuten, Arrasateko liburutegian. Ekimen horren sortzaile nagusienak Itziar Zubizarreta, Elena Odriozola eta Aitziber Alonso dira.

Galtzagorri elkarteak partaideek Monterrongo erakusketa baso bilakatu dute eta basoko zuhaitzekin eurekin hainbat jolas proposatu dituzte. Horrez gain, haur poema errezitatuz osatutako CDa ere grabatu dute. Joxean Ormazabalek eta Miren Agur Meabek euren ahotsak grabatu dituzte, eta Julia Marinek ahozkotatzen zuzenketan gidatu ditu. Galtzagorriko arduradunek erakusketa ikusteko CDa entzutea proposatzen dute; hari esker, ikusleek, umeez zein helduek erakusketa proposatzen diren jokoetan parte har dezakete eta poemak irakurketaz gozatu.

Horrez gain, azaroaren 12an, 19:00etan, Joxean Ormazabalek eta Antton Kazabonek poema errezitaldia egingo dute. Azaroaren 26an, berriz, Juan Kruz Igerabide eta Lutxo Egia arituko dira, leku eta ordu berean; hau da, Monterronen, 19:00etan.

LABUR

Aitor Mendiluze eta Sustrai Colina izango dira AEDk antolatutako bertso-afarian

AEDko kultura taldeak bertso-afaria antolatu du azaroaren 15erako, egubakoitza. Bertso-afaria AEDko tabernan izango da, eta, besteak beste, Aitor Mendiluzek eta Sustrai Colinak parte hartuko dute. Bi bertsolariok eskualdeko edozein bertsolari eta bertsozalekin jolas egitera etorriko dira Arrasatera.

Afarira joaten den edozeinek jarri ahal izango du gaia, edo galdarak bota, hitz lauan zein bertsoan. Helburua lagun arteko bertso giroa sortzea da, eta, gehienez, 50 lagunendako lekua egongo da. Izena emateko azken eguna eguaztena (hilak 13) izango da.

Eneko Barberenak Ondarroako Azken Agurren Lehiaketako lehenengo saria irabazi du

ARRASATE PRESSko kolaboratzaile Eneko Barberena arrasatearrak Ondarroako *Bolo-Bolo* aldizkariak antolatzen duen Azken Agurren Lehiaketako lehenengo saria irabazi du. Dagoeneko laugarren aldian izan duen lehiaketa horretan azken agur edo testamentu ipuinak jasotzen dituzte.

Enekoren ipuinean Marokoko mutil batek, Gibraltarko itsas ertzea zeharkatzearekin bat, alabari gutun bat idatziko dio. Mutila bidean ito eta idatzitako gutuna testamentu bilakatuko da. Ipuin horrek lehenengo saria jaso du. Ondarroako Ipuin Onenaren saria Leire Bilbaori eman diote. Enekori 300 euro eta trofeoa eman dizkiote. Enekok *Putz* aldizkarian idazten du eta Durangoko Azokan *Igogailuak*, *Dow Jones* eta *beste droga batzuk* liburua argitaratu du, Apokaliftin Kultur Elkartearen eskutik.

'Zergatik nago triste?' lelopean Informazio lantegia antolatu du Ekin Emakume Elkarteak

Ekin Emakumeak Elkarteak, ikastaro ugariz gain, Informazio lantegiak ere antolatu ditu. Dagoeneko abian da horietako bat, zuzenbidearekin lotutako gaiak jorrotzen dituen. Urriaren 31tik azaroaren 21era, Emun kooperatibako abokatu Ainhoa Larrañagak zuzenbidearen aurrean ditugun eskubideak argitzen dihardu, eguenero, 18:00etatik 21:00etara.

Beste lantegi bat ere antolatu dute: *Zergatik nago triste?* Emakumeek heldutasunean izaten dituzten aldaketek egunerokotasunean eragin eta nahigabetuta sentiarazten dute bat baino gehiago. Azaroaren 28tik abenduaren 19ra, Sara Vitoria psikologoa hainbat aholku emango ditu, eguenero, 18:30etik 19:30era. Izena emateko epea azaroaren 22an bukatuko da; elkartearen bertan edo, bestela, 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefonoetan.

Afrikar dantza eta perkusio ikastaroak antolatu berri dituzte

Ikasturteari zelanbait hasiera emanez, Arrasateko Gazte Sailak eta Inaki Bruñak afrikar dantza eta perkusio ikastaroak antolatu dituzte. Ikastaroak azaroaren 18an eta 25ean, abenduaren 2an, 9an eta 16an eta urtarrilaren 13an, 20an eta 27an emango dituzte, astelehenetan. Perkusio ikastaroa 18:00etatik 20:00etara eta dantza afrikarra, berriz, 20:00etatik 21:30era.

Perkusio ikastaroko irakaslea Pedro Martínez izango da, eta *sabar*, *down-down*, *kenkeni* eta *djenbe* perkusio motak erakutsiko ditu. Dantza afrikarreko irakaslea, berriz, Madalena Milano izango da. Ikastaro bakoitzaren prezioa 40 euro da, eta horiek egin ahal izateko kopuru minimoa bete behar da. Izena emateko epea azaroaren 15ean bukatuko da; Gazte Bulegoan edo 943 79 80 25 telefonoan, Inakigatik galdetuta.

Goikobalu abesbatzak kontzertu berezia emango du Santa Zeziliaren omenez

Goikobalu abesbatzak kontzertu berezia eman gura du azaroaren 15ean (egubakoitza), Santa Zeziliaren omenezko ekitaldiak hasiteko asmoz. Goikobalu Izartxoaren taldea –sei eta zazpi urte arteko umeez–, Goikobalu Txiki Abesbatza, Goikobalu Gazte Abesbatza eta Goikobalu Abesbatza –nagusienak– batuko dira datorren egutako bakoitzean. Horiak guztiak, Arrasate Musikaleko Perkusio Taldeak lagunduta, kontzertu berezia eskainiko dute, Amaia Udál Antzokian, 19:30ean.

Talde bakoitzak hainbat kantu abestuko ditu, hala nola: *Arri arri, cavallet*; *I'd like to teach*, *Calypso*, *Amazing Grace*, *Let it be*, *7 Euskal Abesti*, *Satin Doll* edo *Moon River*. Edozelan ere, Goikobaluko lau taldeek eta Arrasate Musikaleko Perkusio Taldeak batera Benjamin Harlan-en *African Alleluia* ere eskainiko dute. Izango da zer ikusi eta zer entzun, zalantza barik!

GUREGAIK / MUSIKA LEHIAKETA

Gazte Leiho Sorkuntza maketa lehiaketa, abian

AINTZANE IRIZAR

Iparraldeko Gure Irratiak, Euskal Kultur Erakundeak, SACEMek eta Agorila diskoe-txeak III. Gazte Leiho Sorkuntza lehiaketa antolatu dute, eta abenduaren 20ra arte dago maketak aurkezteko aukera.

“Zure etxeko garajejan sortzen ari zareten musika kalitatezkoa dela uste baduzu... euskaraz kantatzeko gogo baduzu... uste baduzu ez duzula sekula CDrik plaza-ratzeko aukerarik izango...” Horrela hasi dute antolatzaileek lehiaketaren esku-orria, eta horrela animatzen dituzte euskal musika taldeak lehiaketa horretan parte hartzera. Esan bezala, abenduaren 20ra arte dago zaba-

Zaleendako, Bilbo Hiria edo Euskadi Gazteko lehiaketak bezain ezagun da Gazte Leiho

lik maketak aurkezteko epea. Bi musika estilotan banatu dute lehiaketa: batetik, rock eta heavy musika lehiaketa izango da; eta, bestetik, folk eta bestelako musika lehiaketa. Horietako irabazle bakoitzaren CDA argitaratuko dute gero antolatzaileek. Hainbat baldintza ezarri dituz-



IKER BARANDIARAN

Musika taldeentzako halako maketa lehiaketak interesgarriak dira oso.

te, lehiaketetan ohi denez: besteak beste, partaideek ez dute CDrik argitaratuta izan behar eta hitzak

euskaraz izan behar dira. Eta maketak hiru kantuz osatutakoak izan beharko dira.

LOTSABARIK / Itziar Osa

“Elkarrizketa hau egiteak lotsa eman dit”

IKER BARANDIARAN

Itziarrek ez zeukan gure galderei erantzuteko asmorik ez ideiarik, baina bat-batean ARRASATE PRESSkoek harrapatu, eta ezin izan zigun ezezkerik eman. Hari eskerrak eman beharrea gaude.

• Txikitán, zer izan gura zenuen?

Ez dut oso ondo gogoratzen, baina etxean esaten didate ile apaintzaile izan gura nuela. Etxe azpian ile apaindegi bat dago, eta, agian, horregatik izango da. Oraindik ez dakit zer izan gura dudán, horretan nabil.

• Zelan ikusten duzu zeure

burua hemendik 20 urtera?

Ez daukat ideiarik ere. Zoriontsua izatea espero dut, baita bikotearekin egotea ere. Atzerria ezagutu gurako nuke, baina bizi, Euskal Herrian, eta, ahal bada herri baten.

• Zein da, zure iritziz, adin ideiala?

Orain daukadana: askatasuna daukadalako eta ardura txikiak ditudalako.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehenetasuna?

Lagunei eta familiari.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Ikasketek; eta, bestetik, Euskal Herriko egoerak.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Ez naiz oso lotsatia, baina elkarrizketa hau egiteak lotsa ematen dit.

• Zure alde on bat? Eta alde txarren bat?

Hori besteek esan beharko lukete. Alai naiz, baina esaten didate kaskagorria naizela.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Begiak, gustuko ditudalako.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Begiei edo begiradari. Horrek asko esaten du.

• Arrasaten ligatzen da?

Orokorrean bai. Arrasateko mutilak eta neskek oso itxiak gara, baina ligatu, zertxobait ligatzen da.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoa, 2. maila • ZALETASUNAK: Idaztea eta parranda egitea • LIBURU BAT: ‘Lagun izoztua’
FILM BAT: ‘Braveheart’ • MUSIKA TALDEA: Euskal musika gustatzen zait • KIROL TALDEA: Reala

Aretz
Taberna
Markole, 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

ZUBIZARRETA LANTEGIAK
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

BEHEKODENDATIK

Alberto Pereda

KABIA INMOBILIARIKAKUE

XABIER URZELAI

Alberto zuzendari lanetan dabil negozio familiarrien, baiñe esaten dauen moduen, danetik egin dau. Mondragoetar hau gustora dabil oin dala bost urtetik egitten dauen lanien, baiñe jentiekien tratuen egittie izengo da txartuen erueten dauena. Galderak erantzuten, behintzet, abille da.

Amets bat?

Danondako libertadie.

Eta amets txar bat?

Giza eskubidiek ez errespetetie.

Egin dozun azken biajie?

Valentziara, lanera.

Txartel horixe, zeñei?

Espekuladoriei.

Eta gorrixer?

Politikuei, hori garbi dauket.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Los Otros / Tuareg / The Animals.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue.

Etxeko zapatillak ala zapat?

Etxeko zapatillak.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Inguruek, auzuek-eta.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Mundu danak esaten dau kotxiendako aparkalekuek, baiñe bizikletendako eta motorrendako aparkalekuek be jarriko nittuke.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Gauza asko. Alde batetik, etxebizitzaren arazue; eta, bestetik, Euskal Herriko arazo politikue.

Bizio bat?

Ondo bizi izetie.

Gustoko mendi bat?

Danak. Santa Barbaratik Eberretera arte.

Ezagutu dozun pertsona inte-



“Estetikan gauzak asko aldatu die. Kalidadien danetik dago, bai oin baita lehen be”

resante bat?

Asko, baiñe ezezagunek die.

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Jiddu Krishnamurti.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Pertsona interesante batekin izen biherko litzake, ez?

Telebisiñoko programa bat?

La mirada mágica gustetan jat.

Eta irratikue?

Berrikerketa Herri Irratian eta Kultura.com Euskadi Irratian.

Bizi izetera hiri batera juete-kotan, nora?

Iruñera.

Mondraguetarrok badaukogu egur mota gustokoren bat?

“Ez dauket altzari mota gustokorik: gela bakotxari altzari mota bat geraketan jako ondo”

Bai; momentu honetan kerei-xa eskaketan da gehixen.

Zein alde dago lehengo altzarixen eta oingo altzarixen artien?

Estetika aldetik alde haundixe dago. Kalidade aldetik danetik dago, bai oin baita lehen be.

Geruago eta ohe haundixaguet saltzen dittuzue, zergaittik?

Logelak haundixaguet dielako ez. Elkarrei geruago eta gutxiago aguantetan dutzeguleko-edo.

Altzari argixek edo illunegurago?

Gela bakotxari altzari bat.

Mondraguetarrok burue ondo ‘amueblaute’ daukogu?

Ez, baiñe ez dot uste hori txarra danik.

NIRE BIDAIA HURA / Iñigo Gutiérrez

Islandiara / 2001eko udan

Lagun batek erakutsitako argazkiei esker animatu zen Iñigo Islandia bisitatzera. Koadrilakoek beste asmo batzuk zituzten, eta Iñigok argi zeukan Islandiara joan gura zuela. Bi bider pentsatu barik, Islandiaren gaineko informazioa batu, eta hegazkina hartu zuen. Hiru aste egin zituen Islandian, eta uhar-te osoari itzulia egiteko aprobetxatu zituen hiru aste horiek. Keflavik-era iritsi zen, eta auto bat errentan hartzea erabaki zuen Iñigok. Ez zeukan oso argi zelan bidaiatu: auto bat errentan hartu edo garraio publikoak erabili. Azkenean, autoa hartu zuen, eta, Iñigoren esanetan, asmatu egin zuen: “Garraio publikoak ez ziren batere merkeak; autoak askatasun handia ematen zidan”.

Keflaviken hasi zen abentura, eta ekialderantz jo zuen Iñigok. Bidaia ia guztia kostaldetik egin zuen, baina noizean behin uharte barrualde-ara sartzen zen. “Islandian aurkitu ditudan parajeak ez ditut beste inon aurkituko. Oso leku ikusgarriak daude, baina uda partean joateko aholkatuko nuke. Neguan han ez dago ezer; hotza, galanta”.

Uhar-tea baino ez bada ere, leku batetik bestera parajea asko aldatzen da. Gauza asko daude ikusteko: geyser-ak (lurretik irteten den ur-lurruna), ur-jauziak, fiordoak, glaziarrak eta naturak eskaintzen dituen beste hainbat ikuskizun. Iñigoren esanetan, errepikatze moduko bidaia izan zen, nahiz eta une batzuetan larri samar ere ibili zen. “Uhar-tearen iparraldean nengoela, lau egunean eguraldi txarra egin zuen. Kanpadendarekin ibiltzeko ez zen giro, eta bustita eman nituen lau egun. Behin baino gehiagotan galdetu nion neure buruari zertara joan ote nintzen hara, baina gainontzean ondo moldatu nintzen”.

Ipparraldeko lurraldeak ezagutzen jarraitzeko asmoa du Iñigok. Hurrengo helburua Groenlandiara joatea izango da. Inor apuntatzen ez bada, mondragoetarrak ez dauka inongo arazorik bakarrik joateko.

XABIER URZELAI



Islandian bainu termalak udan nahiz neguan hartzen dituzte.

“Islandia bizirik dagoen uharte da: sumendiak, ‘geyser’-ak...”

Herrialde berriak bisitatu dituzu udan?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARRAREN ETXETIK



ARRASATE PRESS

Alzheimer gaitzak geroago eta jende gehiago arduratzen du, eta gaixoei eta haien senitartekoei laguntza behar dute.

Alzheimerren gainera ikerketa laguntzaria egingo du Matiak

ERBARRANDIARAN

Matia Fundazioak Alzheimerren gainera ikerketa garrantzitsua hasi du. Eta orain arte gaitz horren gainera egin diren ikerketen artean aitzindaria da.

Matia Fundazioaren Alzheimer Unitateak Gipuzkoan lan egingo du, eta oraingoan, hirugarren adineko seiehun lagunekin eratu gura du gaitz horren gainera ikerketa. Ikerketa hori orain arte lau urte barru bukatuko da. Helburua da medikamentuak eman barik egiten diren laguntza modu zehatz eta kontrolatua jarraitzea.

GAITASUN KOGNITIBOAK INDARTU

Alzheimerren gaitz horiek, batez ere, gaitasun kognitiboak aztertu gura dute; hau da, gaixoei gaitasun kognitiboak indartzea, arrazoiak, oroimena, arazoak, hain zuzen ere. Eta, bide horretatik, gaitasun kognitibo horiek indartzea eta gehien indartu eta kontrolatzea gura dute.

Adituen esanetan, proiektu horren berritasuna ikerketaren zehaztasunean datza. Matia Fundazioak adituek ikerketa egiteko aztertuko duten lagun kopurua eta ikerketak iraungo duen denbora luzeak ere badute eragina proiektu hori orain artekoak baino garrantzitsuagoa dela esateko.

Senideei laguntza eskaini

AFAGIk bezala, Matia fundazioko Alzheimer Unitateak ere Alzheimerren dutenei eta haien senitartekoei laguntza emango die. Ikerketa horren bitartez jakin gura dute gaixoei lan eginez gaitasun kognitiboak indartzea, galeraren aurka zer-nolako emaitzak lor daitezkeen. Horrez gain, Alzheimerren duten gaixoen senideei babesa eskaintzen diete.

Matia Fundazioko adituek psikologoek, neurologoek eta beste langile espezializatu batzuek ikertuko dituzten seiehun erretiratu gipuzkoarrak hiru taldetan banatu dituzte: bate-tik, hirurogeita bost urtetik gorako hainbat lagun, osasun ona dutenak. Eta, eurekin batera, Alzheimerren barik orotik arazo txikiak dituztenak; bestetik, Alzheimerren gaitzaren sintoma txikiak dituztenak; eta, azkenik, Alzheimerren gaixotasunaren sintoma handiak dituztenak.

Ikerketaren hasieran seiehun lagun horiei azterketa egingo die, arlo neuropsikologikoa, afektiboa, bizi kalitatea eta osasun egoera kontuan hartzeko. Horren ondoren, seiehun horietatik talde bat gaitasun horiek garatzeko lanean hasiko da, egun bi astean, eta ordu eta erdiz. Gainerakoek, berriz, eguneroko bizitza egiten jarraituko dute. Sei hilean behin azterketa batzuk egingo dizkiete batzuei eta besteiei, eta, horri esker, lehenengo taldearekin egindako lanaren emaitzak jakin-gotuzkoak dituzte.

LABUR

Abaroako erretiratuen elkarteak Iruñera eta Orikainera txangoa antolatu du

Abaroako erretiratuen elkarteak beste txango bat antolatu du azaroaren 21erako. Iruñera joango dira, eta han aisialdirako denbora izango dute. Gero, Ciudadela, Taconera eta Planetarioa bisitatuko dituzte, eta Orikainen bazkalduko dute. Bazkarian dantzaldia eta opariak izango dituzte. Interesatuak azaroaren 12a aurretik izena eman beharko dute, eta 20 euro ordaindu.

Alzheimer Gaixoen Senideen Elkarteak elkarri laguntzeko taldeak eratu gura ditu


Gipuzkoako Alzheimer Gaixoen Senideen Elkarteak (AFAGI) Alzheimerren duten gaixoen senitartekoei elkarri laguntzeko taldeak eratu gura ditu. Dagoeneko ikasturtea hasi dute, eta elkarteak Arrasate pasealekuan duen egoitzan elkartuko dira senitartekoei. Interesatuok, deitu 655 71 18 37 telefonora izena emateko edo beste edozein argibidetarako. Ederto hartuko zaituztete!

ZAHARRAREN AHOTIK

Manolo Uribe

URIBARRIKO ZAHARRAREN ELKARTEKO PRESIDENTEA

Uribarri zaharren elkartearen presidentea berria da Manolo Uribe. Horrez gainera, elizako pastoraletan lanean ere ibili izan da.



Arrasaten jaio zinen, baina haurtzaroa kanpoan eman zenuen, ezta?

Bai, 1935ean jaio nintzen, Arrasaten, Zaldibarren. Gerra piztu zenean, aita espetxeratu egin zuten, eta amak, arrebak eta hirurok Santanderrera errefuxiatuta jo zenuen. Gero, handik, Montpellierrera jo zenuen, itsasontziz. Hiruzpatalau urte geroago, Arrasatera bueltatu behar izan ginen. Frankistek etxea kendu ziguten, eta Maalako Olatxo etxera joan ginen.

Hortaz, handik aurrera, Arrasaten ikasi eta lan egin zenuen?

Bai. San Vitorren ikasi nuen. Gero, hamalau urterekin, Eskola Profesionalean hasi nintzen, eta handik, Aprendizien Eskolara joan nintzen. Egun erdiz Aprendizien Eskolan ikasten nuen eta beste erdia Elman lanean ematen

nuen. Ikasketak bukatu ondoren, hamar urtez Elman elektrikari lanak egin nituen. Eta horren ondoren, 28 urtez, erretiratu artean, Fagor Elektra-gailuetan lan egin nuen.

Baina fabrikako lanaz gain, beste saltsa batzuetan sartuta ere bazabiltza...

Betidanik arduratu izan nau gizarteak. Bost urtean ibarreko Gaixoen Pastoraltzako ordezkari izan nintzen. Aurretik, berriz, Uribarriko zaharren elkartearen presidentea kargua hartu dut. Horrez gain, orain, Kartzeletako Pastoraltzan lanean hasi naiz. Seme bi eta loba bat dauzkat.

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE



ARRASATE
Alai Concepción
Azaroaren 12an, urtebetetzea. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Ainara Ábasolo
Azaroaren 15ean, 22 urte. Zorionak! Errastiko-jate-txeko lankideak.



ARRASATE
Lorea Mateos
Azaroaren 8an, 1 urte. Zorionak! Arrasateko amama.



ARRASATE
Ritxar Gorosabel
Azaroaren 7an, 37 urte. Zorionak! Anaia.



ARRASATE
Maialen Díaz
Azaroaren 7an, 2 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARAMAIO
Eskarne Ugarte
Azaroaren 10ean, 14 urte. Zorionak, Eska "io"! Familiakoak.



ARRASATE
Teresa Ezpeleta
Azaroaren 8an, urtebetetzea. Zorionak! Garazi, Ene-ritz eta etxeokak.



ARRASATE
Nahia Bizkaino
Azaroaren 8an, 7 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Olga Morrás
Azaroaren 8an, urtebetetzea. Zorionak, amama! Etxekoak.



ARRASATE
Goizane Arana
Azaroaren 10ean, 25 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Arantxi
Azaroaren 6an, 41 urte. Zorionak! Euri, Kepa, Hodei, Ur eta Aratz.




ARRASATE
Iker Heriz
Azaroaren 7an, 2 urte. Zorionak! Aita, ama eta Jone.



ARRASATE
Mari Carmen Andrés
Azaroaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak! Lankideak.



ARRASATE
Oihana Garro
Azaroaren 11n, 23 urte. Urte askotarako! Lagunak.



ARRASATE
Jokin Dolara
Azaroaren 7an, 8 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Mari Carmen Andrés
Azaroaren 10ean, 35 urte. Zorionak! Agurtzane, Marije, Enkarna eta Eli.



ARRASATE
Aimar Mijangos
Azaroaren 13an, 1 urte. Zorionak! Aita-pontekoa.



ARRASATE
Aimar Mijangos
Azaroaren 6an, urtebetetzea. Zorionak! Familiakoak.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera martitzena baino lehenago argazki batekin eta utzi gure esku! Otalora lizentziaduna, 31.

**Eros ezazu
Ibai-Arteko dendetan
eta irabaz ezazu
600 euroko sari berezia!**

**Ez galdu aukera!
Azaroko zozketa abian da.**

**eta gainera...
abenduan 3.000 €ko
sari erraldoia**




EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Ze egunetan izaten da azoka-plaza Arrasaten?
Arrastoa: astean birritan izaten da.



Super Bm emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **EGUAZTEN**
EGUERDIRAKO ARRASATE PRESSERA!

Jordan ardo gaztea
75 cl-ko botila

3x2,38 € 396 pta

Super Bm beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOXE AGIRRE rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Joxe!
Galderen erantzun zuzenak:
Deba ibaia eta Aramaio erreka.
Lantegi eskolaren parean.

ARRASATEKO HISTORIA

Canovas del Castilloren heriotza Santa Agedan

IVAN ANDER RAMOS

«Canovas del Castillo ez badago infernuan, orduan ez dago infernuri». Horiek Jacinto Herizen hitzak dira, Espainiako politikoaren heriotzatik urte dezente pasatu eta gero. Canovas del Castilloren hilketaren testigu izan zen Jacinto Heriz, 14 urte zituela.

Canovasen esanetan, Santa Agedan egiten zituen egonaldiek bizia bueltatzen zioten. Bizimodu politiko gogorra zuen, eta noizean behin beharrezkoa izaten zuen Arrasateko bainuetxera joatea.

1897ko abuztuaren 8ko goiza argitsua izan zen, oso eguraldi ona egiten zuen, eta estatu-politikari malagarra hamaiketako mezan izan zen. Mezaren ondoren, egunkaria hartu, eta zulkari baten jarri zen, apur bat irakurtzeko asmoz. Eguerdiko ordu bata baino apur bat lehenago zen, eta Canovas zain zegoen, noiz bazkalduko zuen zain. Zain egin zituen bizitzako azken minutak. Angiolillo anarkistak Canovas aulkian eserita zegoela tirokatu zuen. Hainbat tiro eman zizkion Angiolillok, eta monarkiaren

“Canovas del Castillo ez badago infernuan, orduan ez dago infernuri”, zioen Jacinto Herizek

berrezarkuntzako bultzatzailea bertan geratu zen, hilda.

Hilketaren ondoren sekulako zalaparta izan zen Santa Agedan: “Presidentea hil dute, presidentea hil dute”, oihukatzen zuen jendeak.

Jacinto Herizen esanetan, Arrasaten Canovas del Castillo ez zuten begi onez ikusten. Besteak beste, estatu-politikiariak hartutako hainbat erabakirengatik: zergen inposatzea, derrigorrezko soldadutza, foruen sistema indargabetzea... Eta jendearen egonezina nabaria zen. Canovas del Castilloren hiltzailea –Miguel Angiolillo anarkista– Bergarako kartzelara eraman zuten berehala, eta handik hamabi egunera Bergarako kartzelan garrote vilez hil egin zuten.



XABIER URZELAI

Angiolillo anarkistak Canovas del Castillo tirokatu zuen unea, margolanean.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko azaroaren 8a / 46. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Bizente Goikoetxea plazan aparkatzeko debekua kentzea erabaki du Udalak

UBANE MADERA

Osoko bilkurak onartu egin zuen Bizente Goikoetxea plazan zegoen aparkatzeko debekua kentzea. Horrez gain, Santa Luzia ermitari zergak ezabatzea erabaki zuten, eta azkenaldian herrian agertu diren pintadak gogor gaitzestea ere erabaki zuten.

Orain dela urtebete baino gehiago debekatu zuen Aramaioko Udalak Bizente Goikoetxea plazan ibilgailuak aparkatzea. Herriko plaza hori oinezkoendako izatea gura zuten.

Baina makina bat eztabaida piztu zuen herritarren artean Udalaren erabaki horrek, baita dendarien artean ere. Horren ondorioz, Udalak erabaki zuen plazan aparkatzea debekatuta egon arren zamalanak egin ahal izango zirela; horrela, dendetako hornitzaileek eta Aramaioko bizilagunek bazuten aukera plazan autoa uzteko, baina bakarrik erosketak egin bitartean.

Hala ere, horrekin ere alferrik izan da. Debekua iraun duen artean, zenbait herritarrek ez diote inolako jaramonik egin debe-



Berriro ere aparkatu ahal da Bizente Goikoetxea plazan.

ku horri, eta ibilgailuak plazan aparkatzen jarraitu dute.

Hori ikusita, eta neurri gogorragoak hartzen hasi baino lehen, joan den asteko udalbatzarrek

erabaki zuen aparkatzeko debekua bertan behera uztea. Are gehiago, dagoeneko kendu dute plazan aparkatzea debekatzen zuten seinalea ere.

SANTA LUZIA

Bestalde, Santa Luzia ermitak konpontzeko beharra duela-eta, zelanbait ekimen horretan laguntzeko eskatu diote Udalari. Oso-

*Oker dagoena
zuzendu gura dute
Santa Luzian.
Lanak auzolanean
egingo dituzte.*

ko bilkurak egoera aztertu, eta ermitari udal zergarik ez kobratzea erabaki du. Emilio Pérez parrokoak jakinarazi digunez, ermitaren teilek aldatzeko beharra dute; egurra bistan utzi gura dute; hormak ere txukundu gura dituzte, eta, ahal bada, harria bistaratu. Oro har, oker dagoena zuzendu gura dute. Lanok auzolanean egingo dituztela ere esan digu Aramaioko parrokoak; hortaz, gastuak materialari dagozkionak izango dira. Gaineratu digu baimena eman bezain laster hasiko direla lanean, Faustino Oruna Karkun-en gidaritzapean.

PINTADAK GAITZETSI

Horrez gain, azkenaldian herrian agertu diren pintadak gogor gaitzestea ere erabaki zuen Aramaioko udalbatzarrek.

Partxis Lehiaketa jokatu dute bihar

UBANE MADERA

Astlehenean San Martin Eguna dela-eta, Txirritola Euskara Elkarteak urteroko Partxis Lehiaketa antolatu du. Bihar, zapatua, jokatu dute, udaletxeko areto nagusian. Eta gatzetxoendako zein nagusien-dako lehiaketa izango da, nor bere mailan.

Aurtengo Partxis Lehiaketa 16:30ean hasiko da, udaletxeko osoko bilkura aretoan. Ohi bezala, hiru mailatan banatuko dituzte jokalaria: batetik, 6 eta 12 urte artekoak; bestetik, 13 eta 16 urte artekoak; eta, hirugarrenik, 17 eta 100 urte artekoak.

Aurreneko bi mailetatik ira-

bazten dutenek 60 euroko saria eskuratuko dute; baina ez dirutan, baizik eta musika edo liburu dendaren baten gastatzeko txarteletan. Nagusiek, berriz, 90 euroko saria poltsikoratuko dute.

Bestalde, antolatzaileak ere Txirritola Euskara Elkarte kideak han izango dira, arauak esplikatzen eta, hala behar duenari, zalantzak argitzeko.

ERANTZUN ONA

Hirugarren aldiz antolatu du Txirritola Euskara Elkarteak Partxis Lehiaketa. Eta pozik daude orain arte lortutako erantzunarekin. Izan ere, urte batetik bestera geroago eta jokalaria gehiagok parte hartzen dute txapelketan. Iaz, 56 lagunek egin zuten partxisean.



Iaz, 56 lagunek hartu zuten parte Partxis Lehiaketan.

LABUR

Argia moztuko dute bi aste barru

Udalak jakinarazi digu azaroaren 18an, 19an edo 20an argia moztuko dutela, unetxo batez, Aramaio osoan. Kontua da Bentamotz gainean eta Bolinburu aldean pintuek gaitzetsiok hariaren bidea jan dutela. Neguari begira arris-kutsua dela-eta, bidea garbitzea erabaki dute, eta, horretarako, erdian dauden pinuak moztuko dituzte. Ezin da zehaztu lanok noiz egingo dituzten ez eta noiz moztuko duten argia. Eguraldiaren arabera izango da hori.

SAMELIXANAK

Gantzagako Samelixenak ospatzeko guztia gertu dago

Datorren martitzenean San Millan zaindariaren eguna dela-eta, gantzagarrak auzoko jaiak ospatzeko dituzte asteburuan. Horrela, gaur hasi eta domekara arte denetarik izango da Gantzagako.

Gaur gauean hasiko dira jaiak, 21:00etan, etxafuegoekin. Eta, ordu erdi geroago, Debagoieneko zenbait txistularik kontzertua emango dute, auzoko elizan. Besteak beste, Isidro Ansorenaren pieza batzuk interpretatzeko dituzte. Bihar, berriz, 12:00etan meza nagusia izango da, Aretxabaletako abesbatzak kantatuta. Eta, 13:00etan, Bermut dantza auzoko Larrea trikitilariekin. Arratsaldea mus txapelketarekin hasiko dute, 17:00etan Izpizte elkarteak. Eta, 17:30ean umeendako jolasak izango dira. Gauean, berriz, Harkaitz eta Aintzane bikoteek alaitutako dantzaldia izango dute, 23:00etatik aurrera; eta atsedendian bertan harrapaketa saiatuko dira. Goizaldeko ordu txikietan, 08:00etan, barruak berotzeko txokolata banatuko dute.



DOMEKAN, TXIRRINDULARI IGOERA

Etxafuego eta kanpai errepikarekin esnatuko dituzte auzotarrak domekan; 11:00etan auzoan hildakoen aldeko meza izango da eta, 11:30ean, Gantzagako XXII. txirrindulari igoerako parte har-

tzaileen izen ematea izango da. Geroago, 11:45ean, bertso saioa; 13:00etan, triki-bertso poteoa Larrea anaien musikarekin; eta jaiekin bukatzeko, 17:00etan, tute txapelketa jokatzeko dute Izpizte elkarteak.

TRIKITILARI EGUNA



Trikitilari Eguna bihar, zapatua

Kalejiran Tritikitxa Taldeak urteroko ospakizuna egingo du bihar, zapatua: Trikitilari Eguna. Arratsaldeko seietan hasiko da jaiak. Orduan, kalejira egingo dute trikitilariak Ibarra zehar. Eta, bitartean, herriko plazan buzkantzak eta ardo beltza emango dizkiete festarekin bat egiten dutenei. Gero, 19:00etan, San Martin zozketa egingo dute, eta ordu erdi geroago trikiti eskolako ikasleendako luncha izango da Ehiztari Txoko elkarteak. Kalejiran Tritikitxa Taldeak herritar guztiak gonbidatu gura ditu zapatuko jaira. /UBANE MADERA

BOTEPRONTOAN/ Aitor Leturiondo · Udaletxeko idazkaria

“Aramaion hurbiltasun handia dago herritarren eta Udalaren artean”

Aitor Leturiondo soraluzetarrak zazpi urte baino gehiago daramatza Udaletxeko idazkari lanetan. Are gehiago, horixe izan da bere aurreneko lanpostua. Baina, iaz, Gipuzkoako Foru Aldundirako lanpostu bat lortzen saiatu zen, eta joan den astean baiezkota eman zioten. Aramaiotik joan aurretik harekin berba egin gura izan dugu:

Bazoaz Aramaiotik, nora?

Donostiara. Iaz Gipuzkoako Foru Aldundiak lan eskaintza publikoa atera zuen. Lanpostu mordoa zegoen, tartean, Zuzenbidean lizentziatura dugunondakoak. Profesional moduan aukera ona zela-eta aurkeztu egin nintzen. Iaztik hona frogatuta egin ditut eta orain dela hilabete jakinarazi zidaten behin-behineko izendatuta nengoela. Eta, joan zen barikuan jakinarazi zidaten ebazpena behin betikoa zela. Han esaten zuten, abenduaren erdialdean-edo hasiko naiz Administrazio Orokorreko teknikari moduan. **Pozik orduan?**

Bai, orain bai; gero ikusi behar! **Zer egin beharko duzu han?** Ez dakit ziur, baina uste dut Ogasunean egin beharko dudala lan, Ogasuneko Idazkaritza Teknikoan.



“Hemengo jendea benetan jatorra da eta oso gustura egon naiz. Hori faltan igarriko dut”

Sumatuko duzu faltan Aramaio? Seguru baietz.

Bereziki...

Hemen, horren txikia izanda, harreman pertsonalak oso garrantzitsuak dira eta zorionez, nik izandako harremanak oso onak izan dira; bai lankideekin, baita zinegotzi eta alkate guztiekin ere. Ia hiru legegintzaldi osorik ezagutu izan ditut eta oso harreman onak izan ditut. Hemengo jendea benetan jatorra da eta oso gustura egon naiz. Hori faltan igarriko dut.

Eta ez duzu bat ere faltan igarriko...

Badaude lan batzuk ez direla oso atseginak: norbait ez ematea gura duen baimena, edo zerbait ukatzea...ez da oso atsegina izaten. Lan berrian ere izango dut horrelakorik, baina, hemen harremanak horren zuzenak izanda, zailagoa da. Hemen

askoz ere inplikazio handiagoa dago, eta askotan muga hori desberdintzea ez da horren erraza. Baina, horrelako lanak gutxienekoak izaten dira. **Zer harritu zintuen gehien Aramaioa etorri zinenean?** Ez nuen batere ezagutzen Udal batek egiten duen lana, zenbat gai lantzen dituen; eta udal gestio on batek herritarren ongizatean duen eragina zenbaterainokoa den ikusteak harritu egin ninduen.

Bestetik, Aramaion oso harreman zuzena egotearen ondorioz, herritarrak, edozer behar dutela ere, Udaletxera datoz, nahiz eta udal kontuekin zerkusirik ez izan. Horrek ere asko harritu ninduen. Hurbiltasun handia dago herritarren eta Udalaren artean.

Han lanean hasi eta gero etorriko zara bisitan?

Bai, hori esan beharrik ere ez dago. Esan diet Udaletxea berritzen dutenean nik ezingo dudanez gozatu, inauguraziora gonbidatzeko-edo (barreak). **Baduzu herritarrei zerbait esateko?**

Eskerrak ematea deni. Profesional eta pertsonal mailan piloa ikasi dut azken zazpi urteotan; laguntza handia izan dut, ez dut inorekin arazorik izan...

“Profesional eta pertsonal mailan piloa ikasi dut Aramaion azken zazpi urteotan”

OHARRAK

ITUR ZURIEN ERAKUSKETA

San Martin jaiaren barruan, bihar, zapatuan, margo lehiaketetako margoak salgai izango dira Sastiña ermitan. 19:00etatik aurrera hasiko da salmenta. Ekimena Itur Zuri Emakume Elkarteak antolatu du.

ARETO FUTBOLA

Agurainen jokatzeko dute oraingo asteburuan Bañerako gazte mailako mutilek. 10:30ean da partidua, Oriamendi Lezaio Agurain taldearen kontra. Bestalde, Bañerako kadeteak datorren astean hasiko dira txapelketan jokatzeko, eta meskak bi aste barru.

ZINEA

Urteendako *Regreso al país de Nunca Jamás* filma emango dute domekan kultura etxean, 17:00etan.

EHIZA TXAPELKETA

Bihar, zapatua, 08:30etik 16:00ak arte ehiza txapelketa izango da Aramaioko elizbarrutian. Txapelketa horretan garaile ateratzen denak datorren asteburuan jokatzeko den Arabako ehiza txapelketan parte hartuko du.

ERRETRATUZAHARRA

Gantzagarrak
Amabirjinaren
zain

Aramaioko Gantzaga auzoan Samelixenak ospatuko dituzte asteburuan. Hori aprobetxatu eta Anbotoren magalean dagoen auzo hartara joango gara argazki zaharraren bitartez.

1950eko hamarkadako erdialdekoa da argazkia. Estibalizko Amabirjinaren zain daude auzotarrak. Izan ere, garai hartan, urtero auzoz aldatzen zuten Estibalizko ama. Gaur egun, Uribarriko elizan dago Amaren irudia.

Asentzio egunean egiten zuten Amabirjinaren leku aldatzea. Pazko osteko berrogeigarren eguna izaten zen; jeneralean, eguna. Hala ere, jai-eguna izaten zen.

Argazkian Amabirjina Etxaguen auzotik Gantzagara eraman behar zuteneko unea ageri da. Argazkiko pertsona gehienak gantzagarrak dira, baina, bestelako aramarioarrak ere badira. Ikusten duzuen moduan, Amari ongietorria egiteko erabilitako pankarta euskaraz idatzita zegoen. Garai hartan ez zen izaten oso ohikoa, baina, gure berriemaileak kontatu



digunez, Elizak neurri batean bazuen baimena.

Honakoak dira argazkian agertzen direnetako batzuk: ezkerreko mutikoen artean, atzekoa Inazio Urrutia da, Linatzako loba; eta, aurre aldekoa Anton Elorza, Amilburu baserrikoa.

Atzean, pankarta azpian ikusten den gaztea, berriz, Valentín Beitia da, Etxaguengo Labeaga baserrikoa; parrokoa On Andrés Agirre da; ezkerreko elizmutila Markos Larrañaga da, Beitikoa, eta bestea David Larrea, Etxebarri baserrikoa. Eta,


erdian dagoen gizona, Kristoren irudia eusten dagoena, Iñaki Larrañaga da, Urdingio baserrikoa.

Argazkia: Amilburu baserria
Urtea: 50. hamarkada


NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Iturripeko
pilotalekuak
egiten

Iturripeko lanak 1963an hasi zituzten. Lanak Edur Arregiren ardurapean zeuden, baina egun batetik bestera Edur Arregi desagertu egin zen. ETako aitzindarietako bat izan zen, eta Alemaniara joan behar izan zuen, lanera, baita Euskal Herriko iparralde-
ra ere. Edur Arregiren hutsunea Juan Mari Muruamendiarazek bete zuen, eta lanek aurrera jarraitu zuten.



≈ 1963 Egin zituzten pilotalekuak ez ziren makalak, baina gaur egun zaharkituta daude, eta partiduak Uarkapen jokatzeko dira.



2002 Iturripe berritu egin zuten, baina pilotalekuak ez dituzte askorik aldatu. Uda partean gustura jokatzeko da, baina neguan beste kontu bat da.

EGUZKIGRAF
inprimategia
Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941
ARETXABAETA

Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

CE **ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

AG AMAGARA

Erdiko kale 54 behea.

*A*zal deshidratatua
elastikotasun falta eta zimurrak

Badakizu zaintzen lagun
diezazukegula?

Zenbat eta beranduago zaindu
zure azala, orduan eta gaitzago
izango da berreskuratzea

Gaur bertan deitu
943 79 09 09 telefonora

Udazken-negurako eskaintza
berezia. Abenduaren 13a arte

GOITBren ordua!

Orain, ordutegi zabalagoa.

13:30etik 16:30era
Albistegiak, sukaldaritza...

19:30etik 23:30era
Albistegiak, kirola, musika, bidaiak...

Asteburuetan 13:30etik 17:30era
Saio onenak berriz ikusteko aukera.

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**



**Edozein egoera menderatzen
lagunduko dizun auto betekin amets egiten duzu?**
Vectra berria Orain, 16.500 €-tik aurrera.



Opel Vectra berria

Xasis berria Gidatzeko Sistema Interaktiboarekin (IDS), non direkzioak, frenoak eta esekidurak elkarrekin lan egiten duten errepidearen kontrol osoa lortzeko. Vectra guztiz berritua, Ecotec balbula anitzeko motor gama berritzailearekin: 2.2 DTI / 125 ZP edo 3.2 V6 / 211 ZP edo potentzia handiko motorra duen GTS bertsioa.



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

*Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria Penintsulan eta Balear Uharteetan Vectra Club 1.8 16 V modeloan. Hau guztia barne: garraioa, BEZo, matrikulazio zerga, Prever Plana eta berritua ez den ibilgailuen akzioa. Hiri bukaera arteko promozioa. Iragarkian agertzen den modeloa ez da eskaintzen dena.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE

www.giauto.es